

noawa

IRISASI BTT HOTZAK AKABATZEN PROBA, MENDIAZ ETA BIZIKLETAZ GOZATZEKO AUKERA PAREGABEA

Igande honetako lasterketak eragina izango du trafikoan / 12-13



ARGAZKIA: J. UNDIANO/IRISASI BTT

**Manex Torrealdairen
Itzal erromeria
taldeak girotuko du
Inauteri Jaia / 06**

**Pentsiodunen
Mugimendua:
"Urteotan lortutakoa
ospatu behar dugu" / 09**

**Udarregi ikastola
pareko zelaian
eraikiko dute
Elkargunea / 10**

**Euskal Herriko zazpi
herrialdeak, Euskal
Sagardoa Jatorri
Deiturarekin bat / 16**



Alsazia eta Oihan beltza

IRTEERA 2024ko maiatza

Noaak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaak.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

EPA LASARTE HHI HELDUEN ESKOLA

MATRIKULA ZABALIK

(urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra)

(Hitzordua hartzeko eta argibideetarako 943 37 64 43 - 943 36 66 08)

•**LEHEN HEZKUNTZA:** alfabetizazioa, Historia, Osasuna eta elikadura, Ingelesa eta Espainera.

•**BIGARREN HEZKUNTZA:** DBHko titulua lortzeko moduluak.

•**EUSKARA TAILERRA.**

•**GELA DIGITALAK:** hirituartasun digitalerako tailerrak.



**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01 

pikabea@pikabea.eus <https://pikabea.eus/>

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

EAJ: "Santuenea eta San Esteban lotzen dituen bidea egoera kaskarrean da"

Jeltzaleen esanetan, oinezkoentzako bidea "labainkorra eta arriskutsua da erabiltzen duten bizilagunentzat"

Santuenea eta San Esteban auzoak lotzen dituen oinezkoentzako bidea egoera kaskarrean da. "Eguraldi txarraren eragina agerikoa da bide horretan, eta narriadura-zantzu nabarmenak erakutsi ditu, baita lizunaren eta goroldioaren metaketa ere", EAJ-k idatzi bidez salatu duenez. Euriaren eta hezetasunaren ondorioz, "labainkorra eta arriskutsua da

erabiltzen duten bizilagunentzat".

Usurbildarren segurtasuna bermatze aldera, udal gobernuari neurriak har ditzala eskatzen dio, "bide honen baldintzak hobetzeko. Eskaileretan eta bidean, lizuna eta goroldioa pilatzea arrisku potentziala da oinezkoentzat, batez ere euria ari duenean. Funtsezkoa da arazo horri



Bidea garbitu eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzea eskatu du alderdi jeltzaleak.

modu nabarmenean heltzea", jeltzaleek azaldu dutenez.

Bi neurri zehatz

Santuenea-San Esteban oinezkoentzako bidea "guztientzako leku segurua eta eroso izan dadin", bi neurri zehatz proposatu ditu EAJ-k. Bidea

garbitu eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko beharrezko konponketak egin. "Horren barruan sartzen da lizuna eta goroldioa kentzea, eta irristadak eta ererikoak saihesteko neurriak hartzea, hala nola, eskailerak eta bidea behar bezala egokitzea".

Garbigune mugikorra, aste honetan Santuenean

Urtarrilaren 25etik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 1ean osteguna, garbigune mugikorra Kalezarrrera eramango dute.

Udarregiko ate irekien eguna, Agerialden

Otsailaren 7an irekiko dute 2024-25 ikasturterako matrrikulazio epea ikastetxeetan. Larunbat honetarako, ate irekien jardunaldia iragarri du Udarregi ikastolak. Bi saio deitu dituzte; lehenengoa 10:30ean, bigarrena 12:00etan. Urtarrilaren 25a baino lehen eman behar da izena.

'Gazteon Eskutik' ekimenerako bonuak salgai

Martxoaren 29tik 31ra Ernai gazte antolakundeak Lezon antolatu duen 'Gazteon eskutik loratuko da udaberria' ekimenerako hiru egunetarako bonuak salgai jarri dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan; tartean, Usurbilen, Aitzagan hain zuzen, 35 euroren truke.

Ostiral honetan, Sareren elkarretaratzea

'Konponbiderako giltzak' aldarripean, Bilbon egindako manifestazio jendetsuaren ondotik, ostiral honetarako, urtarrilaren 26rako iragarri du iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan Sarek, euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Azalaldatzen (4)

Oinetakoek asko diote pertsonari buruz. Gregory Housei entzun nion. Itxurakeriarekin badu zerikusirik, bai eta lekuz kanpokotasunarekin. Gizakia bipedoa den heinean, oinak zaindu beharrekoak ditu. Denahaiengaineanzamatuko du, izan zama fisikoa, izan emozionala. Horregatik dira zaindu beharrekoak.

Halere, entzungor egin ohi dio gehiengoak, eta erositasuna nahiz osasuna ez dira lehenesten. Nahiago izaten dugu itxurakeriatara jolastu.

Auskalonongo malkarretan altxatutako txabola hartan, bat baino gehiago daude lekuz kanpo, itxurakeriatara jolasten. Nahi dutena esango dute, familia baseritik datorrela, badakitela bereizten zaldia eta behorren artean, tomateak landatzeko garairik onena apirila dela ziurrenik Jakoba Errekondori entzun diotelako han edo hemen; baina izatez, kalekume hutsak dira. Horren ebidentzia, hamar oinetakotatik zortzi.

Badoaz ni hemen utzita. Lurrean. Lehen hitz-trukaketaren inguruan deliberatzeko garaia izango da.

Eta azalaldatze guztiak direnez zerbaitenak, hau, olinpikoena.

Kanpoko txutxu-mutxuak aditu ezin, eta ni ere gogoea sakonean murgildu naiz. Masaila lur hezearen aurka, eskertu dut azken aldian ez egotea eurite handirik. Lokaztuta egotea atsegin bada ere, metaforikoa da. Lan eginaren salatari da lokatza, edo lokatzaren baliokideren bat. Demagun, izerdia. "Goazen lokatzetara!", oihukatu

bakoitzean, gaixakeriak egin nahi direlako da. Zikintzea beti lanbropean, behe laino itxiarekin.

Estatua helenikoen poster bat jarri nuen gelako horman. Osasunaren izenean, gorputza zaintzen hasi behar nintzenez egoskortu nintzen. Urte hasierako promesak, badakizu. Ni neu izango nintzen nire buruaren Fidiak, eta horretarako, gimnasioan izen eman nuen.

Zorroan arropa zahar/erosoa sartu, eta han abiatu nintzen nagiak jota, baina burua estu. «Egin behar duzu, gero hobeto sentituko zara». Beharbada, nahiz eta aldagelatik atera berritan lekuz kanpo nirudien. Batetik, gehiengoak eskulturagintzan tesia eginga zeukan; bestetik, moda-nozioak eguneratzen hasi beharra neukan. Gimnasia itxuroso joan behar da. Kartel handi bat jarri beharko lukete sarreran edo, behintzat, harrerakoak gomendio estetikoaren bat eman

**"OSASUNAREN
IZENEAN, GORPUTZA
ZAIINTZEN HASI
BEHAR NINTZENEAN
EGOSKORTU NINTZEN.
URTE HASIERAKO
PROMESAK,
BADAKIZU. NI NEU
IZANGO NINTZEN NIRE
BURUAREN FIDIAS,
ETA HORRETARAKO
GIMNASIOAN IZEN
EMAN NUEN"**

dezala. Inori ez zaio arrotz sentitzea gustatzen.

Makina libre batetara hurbildu, goitik behera begiratu, behetik gora begiratu, eta ingeniartzat karrera egitekoan sentitu nintzen. Ezin al dute azalpen-karteltxo bat jarri museoetan bezala? Gaizki ariko nintzen, zeren besoak landu eta hanketako mina sentitzen nuen. Hango langilea edo erabiltzailea zen ez dakidan bat hurreratu zitzaidan ea laguntzarik behar ote nuen galdezka. "Lehenengo aldia da, eta badakizu...". Aitzakia praktikoa zen. Nola erabili azaldu zidan, eta nik bihotzez eskertu nion. Bihotzez baino, gorputzez. Izan ere, bihotzak ez dakit, baina gorputzak sekulako liberazioa sentitu zuen ariketa ondo egitean. Niretzat jainko baten parekoa zen, titan bat, Prometeo bera, Olinpoko sua lapurtu eta gizakiei eman ziena. Sua beharrean, ariketa gehiago eman zizkidan. Ariketak eta gomendioak. Eta proteinak. Eta hango kotilleoak. Eta mindfulness ikastaro azkarra. Eta ekonomia liberalaren tesia. Eta gorputzaren kultura praktikatzeko bideoak. "Ni gerri bueltako kilotoxoren bat kentzearekin konformatzen naiz", erantzun nion adeitsu.

Dutxara bidean oihartu nintzen hango izerdiak ez dituela margoa eta lurrina ezabaten. Zikina urak darara eta argazki bat da eginaren testigu.

Lurraren kontra nagoen honetan, izerdia eta lokatza ez ditu urak eramango, eta argazkirik ere ez da izango testigu.

Argia Sarien banaketa Atxega jauregian egingo da

Euskarazko komunikazioaren sariketa entzutetsua bueltan izango da berriz ere Usurbilen. Urteroko ohiturari segida emanez, ostiral honetan, urtarrilaren 26an banatuko dituzte sariok Atxega jauregian. Sariotarako hautagaitzak proposatzeko tartea bideratu zuten antolatzaileek azaroan. Lehenago, udalerrri honekin lotura duten bi egitasmo saritu zituzten iaz: Entzunezko Argia Saria Iñurri elkartearen (Min)bizi podcast-ak jaso zuen eta Interneteko Argia Saria euskal Mastodon komunitatearen sustatzaileek, tartean Asier Iturralde herri-kideak.

Elkar laguntza talde bat osatzeko deialdia

Elkar laguntza talde bat osatzen ari dira Usurbilen eta interesa duten familia denei parte hartzeko gonbitea luzatu nahi zaie. Sentsibilitate handiko pertsonak (PAS) eta adimen gaitasun handiak (AGH) dituzten umeen gurasoei zuzenduta ekimen hau eta bilera bat iragarri dute.

Urtarrilaren 25ean, bilkura Potxoenean

Urtarrilaren 25ean osteguna, Potxoenean elkartuko dira arratsaldeko 17:30ean.

Ekimen honen antolatzaileek aditzera eman dutenez, bilkurak hilean behin egingo dira. "Lehenengo saioan adostu dezakegu hurrengo saioetako ordutegia zein izango den", ohar bidez jakinarazi dutenez. Talde honi buruzko argibide gehiago topatuko dituzue familiadecebras@gmail.com e-posta helbidean edo @familiadecebras Instagram helbidean.



'Artxibo biluziak' egitasmo lantaldea, emanaldiaren amaieran.



'Azken galdera amari' liburu aurkezpeneko une bat.

Historiarako istorio bila

"Zer istorio nahi zenuke historiara pasatzea?", galdera honi erantzuteko aukera izan zuten Joan Mari Torrealdai bekaren baitan Metrokoadroka kolektiboak ondutako 'Artxibo biluzia' izeneko urtarrilaren 14ko konferentzia performatibo eta antzerki saioan, Intza Alkain eta Javier Barandiaran aktoreekin.

Doluari eta galerari leku egiten

Minbiziak eraman zuen bikote eta amaren heriotzak eragindako dolua, galera... hizpide izan zuten, urtarrilaren 16ko kutsu autobiografikodun Sutegiko solasaldian. Bertan, Manex Beristain azpeitiarrak Azken galdera amari (Denonartean) ipuina aurkeztu zuen.



Udarregi ikastolako LHko ikasleek hilaren 19an eskainitako danborrada.



'20netoak 20 modutara' emanaldiko une bat.

Donostiari aurre hartuz

San Sebastian egunari aurre hartu zieten Udarregi ikastolako LHko ikasleek urtarrilaren 19an. Irudiko danborrada emanaldia eskaini zuten Agerialdeko patioan. San Sebastian martxa eta beste hainbat doinu ezagun ekarri zizkieten hitzordura joandakoei.

Booktegi jaialdiko azken saioa

Urriaren 28an bigarren urtez Usurbilen ospaturiko Booktegi jaialdiaren baitan, bertan behera utzi behar izan zuten emanaldia izan genuen ikusgai iragan igandean Sutegin; '20netoak 20 modutara', Harkaitz Cano, Beñat Barandiaran eta Maite Larbururekin.





Laiotzen agurra eta gero, taldeko musikariek egitasmo berri bat jarri dute martxan: Itzal erromeria taldea.

"Inauteri Jaian mozorrotuta igoko gara oholtza gainera"

MANEX TORREALDAI ITZAL TALDEKO MUSIKARIA

Itzal erromeria taldea arduratuko da aurtengo Inauteri festan gauari gatza eta piperra jartzeaz. Manex Torreal dai herritarra talde berri honetako trikitilaria da.

Manex Torreal dai trikitilariak urte askotako esperientzia du erromeria taldeetan. Gehienek Laiotz taldean irudikatuko dute, sei urteko musika ibilbidea egin baitu bertan. Laiotz proiektuari 2023ko abenduan esan zioten agur, ordea, proiektu berri bati bide emateko. Erromeria talde berri baten sorrera fasea da oraingoa, Itzal taldearena, hain zuzen ere. Laiotzeko musikari berberaz osatutako taldea da, baterijolea salbu, eta Usurbilen inauterietan kontzertua eskainiko dute otsailaren 10ean.

NOAUA! Itzal taldearekin izango zarete aurtengo mozorro jaietan.

Ordua eta bestelakoak zehaztu dituzue jada?

Manex Torreal dai: Bai, herriko frontoian arituko gara gaueko hamar eta erdietan hasi, eta goizeko ordu txikiak arte.

Laiotz taldea zineten lehen, Itzal orain. Musikarien artean aldaketak izan dira? Bi proiektu hauen artean zein alde dago eta zertan dira gauza bera?

Laiotzek 33 urte egin ditu eta urte horietan baterijolea izan da proiektuaren hasieratik amaieraraino egon den bakarra. Taldea berea zen nolabait eta gainontzekoak musikariak; musikari kontratatuak bagina bezala. Hark taldea uztea erabaki zuen, eta taldearen ize-

narekin ere bera geratu da nolabait. Beraz, gainontzeko musikariek erabaki genuen erromeria taldearekin jarraitzea beste baterijole batekin eta izen berri bat hartuta. Itzal bada halako Laiotzen keinu txiki bat. O letra logotipoa biribiltzeko erabili dugu, eta gainontzeko

"AGUR POLITA IZAN ZEN; MEREZI ZUEN LAIOTZEK HORRELAKO AGUR EDER BAT, LAGUNEZ INGURATUTA"

letra guztiak berdina dira ordena aldatuta. Gainera, toki laiotzak itzaleko lekuak izan ohi dira. Keinu horiek ditu nondik gatozen gogorazten digutenak.

Oialumen eskaini zenuten Laiotzen azken kontzertua 2023ko abenduaren 16an. Berezia izan zen? Zein oroitzapen dituzu?

Nahiko garai gogorra izan zen. Itzali forma ematen hasita geundela, 2 kontzertu eman genituen Itzalen izenean oraindik Laiotz agurtzeko kontzertua egin gabe zegoela. Nahiko kaotikoa, baina benetan polita izan zen. Oialume leku berezia zen Laiotzentzat, Xabi, nagusia, Oialumekoa zen eta maiz jotzen genuen bertako jaietan. Berezia izan zen lekua, baina baita jendea ere. Jende dezente hurbildu zen urtean zehar gure kontzertuetan ikusten duguna, herri ezberdinetakoak izanagatik ere denak han elkartuta, belaualdi ezberdinak, Laiotzen partehartutako musikariak... Ia 33 urte hauetan Laiotzen parte hartu zuten musikari guztiak batzea lortu genuen eta gonbidatu bereziak ere izan genituen. Oso agur polita izan zen; merezi zuen Laiotzek horrelako agur bat.

Laiotz bukatu eta zuzenean hasi zarete Itzal taldearekin, momenturen batean bi taldeak izan dira aktibo edo nolakoa izan da transizioa?

Laiotzen agur kontzertuarekin agur esan genion proiektu hari. Lehenago izan genituen pare bat kontzertu Itzalekoak. Oraindik jendeak deitzen dio Laiotzi kontzertuak proposatzeko eta Xabik Itzalengana bideratzen ditu. Musikariak berdina gara, talde propioarekin eta oso proiektu antzekoarekin. Argentinan egon ginen Laiotzekin agur kontzertua baino hilabete batzuk lehenago. Itzuli ginenean bi dei genituen Laiotzentzat, baina Xabik agur kontzertua egin nahi zuen ahalik eta azkarren,

—> eta guk ahalik eta azkarren Itzalekin jarraitu nahi genuen. Beraz, Laiotzekin egin beharrean, Itzalekin egin genituen kontzertu haiek. Asmoa 2024an Itzalekin hastea zen.

Kontzertuak lortzeko ez dizue arazo handiegirik eman izen eta proiektu aldaketa horrek?

Neurri batean bai. Zaila egiten ari zaigu izen aldaketa horrekin ezagutzera ematea eta jendeak musikariok proiektu berriarekin lotzea. Eskertuko genuke aukera ematea; esperientzia handiko musikariak gara eta Laiotz gustuko dutentzat aukera bikaina. Oso ohituta gaude plazetan kontzertuak ematen eta horrekin jarraitu nahi genuke.

Laiotz taldean ibilbide luzea egin zenuen. Atzera begira jarrita zer azpimarratuko zenuke urte horietan guztietan egindako lanaz?

Laiotzen sei urte egin nituen eta orain zazpigarren denboraldia izango da. Laiotzen aurretik beste talde batean ibili nintzen, beraz, zortzi urte daramatzat erromerian. Musikari modura zaila da talde bat izanda kontzertuak izatea modu jarraikor batean. Erromeriak badu zentzu horretan zorte ona. Abesti propioak ez direnez, leku askotan denek ezagutzen duten musika egitea garrantzitsua da, eta erromeriak hori eskaintzen digu. Kontzertu kopuru ederra eta leku zailetan jotzea lortu dugu. Talde handiek izaten dituzten kontzertu kopuru horietan ibiltzeko aukera ematen dute erromeria taldeek eta plaza zailetan jotzeko aukera ere eskaintzen dute.

Adibidez, Donostiako Pirattek antolatutako kontzertuetan partehartzea oso zaila da abesti propioekin, baina erromeriak aukera eskaintzen du horrelako lekuetan jo ahal izateko. Argentinarekin ere berdin gertatu zaigu; oso zaila izango zen guretzat bertara joatea abesti propioekin. Erromeriak aukera horiek



"Zaila egiten ari zaigu izen aldaketaren ondoren Itzal taldea ezagutzera ematea eta jendeak gu proiektu berri honekin lotzea".

eman dizkit. Musikari oso onak ezagutzeko aukera ere izan dut eta trikitilari lanetan ere asko erakutsi dit horrek. Bakoitzak bere modua du eta elkarrengana moldatzen erakutsi didate esperientzia hauek.

Inauterietan jotzea tokatuko zaizuenez, mozorrotuta ibiliko zarete?

"ITZAL TALDEAK HARRERA OSO ONA IZAN DU ETA DEIAK JASOTZEN ARI GARA LEKU ASKOTATIK"

Fauna da aurtengo gaia Usurbilen, baina hiru kontzertu ditugu otsailerako aurreikusita. Harrera oso ona izan du Itzalek eta deiak jasotzen ari gara. Hirurak inauteri eta mozorro girokoak izango dira, gainera. Idiazabalena izango dugulehena, mozorro egunean. Usurbilen inauterietan, eta Lesakan, azkenik, mozorro festan. Beraz, ez dakigu orain-

"INAUTERIAK AITZAKIA EDERRA ZIREN MOZORROTZEKO ETA USURBILEN ASKO GOZATZEN NUEN INAUTERIEZ"

dik nola egingo dugun guztia-ri forma emateko. Mozorrotuko garela, hori ziur. Ez dakigu leku bakoitzerako mozorro bat prestatu edo faunaren gaia aprobeztatuta hiru lekue- tarako gai horri lotutako mozorroak prestatu edo zer egingo dugun. Leku bakoitzerako mozorro ezberdin bat prestatzea zaila izango da, eta hiru- retarako bat prestatuko dugula pentsatzen dut. Hala ere, mozorroak pentsatzerakoan buelta asko ematen dizkiogu gaiari, izan ere, musika egin behar dugu eta asko mugitzen garenez, mozorroak eroso- a izan behar du. Erabakiren bat hartuko dugu datozen egune- tan.

Inauteriak gogoko dituzu orokorrean? Zein da inauterietako plan on bat?

Usurbilen bizi nintzenean, izugarri gustatzen zitzaizkidan inauteriak. Begirale lanetan urte asko egin ditut eta lan horietan mozorrotzea oso ohi-koa izaten da. Inauteriak aitzakia ederra ziren mozorrotzeko eta Usurbilen asko gozaten nuen inauteriez. Gero, Tolosara bizitzera joan nintzen eta han bizi izan nintzen sei urtez. Orduan, konturatu nintzen han inauteriak beste modu batera bizi dituztela, askoz ere intentsoagoa izaten da. Urte- ren batean atera nintzen, bai- na han bizi izan nintzen urte- etan ez dut ia jaiaz gozatzeko aukerarik izan. Lanean harrapatzen ninduten inaute- riek eta ia arazo bilakatu ziren niretzat: autoa aparkatu ezin, izugarrizko zarata, jendea moz- korra kalean, zikinkeria... To- losarrekin jai hartzen dute inau- terietan, baina nik lan egin behar nuen. Pereza pixka bat ematen zidaten zentzu horre- tan, nire egunerokoa asko aldatzen zutelako eta zailta- sunak izaten nituelako. Hala ere, oso inauterizalea naiz. Izugarri disfrutatzen dut mo- zorrotuta, gainontzekoen mo- zorroak eta irudimena nolakoak diren ikusten.



Askotariko udal dirulaguntza deialdietara eskabideak aurkezteko aukera izango da asteotan.

Udal dirulaguntza eskaintza zabala

2024an askotariko egitasmoak garatzeko eskainiko dituen dirulaguntza lerroen oinarriak kaleratu zituen Usurbilgo Udalak urtarrilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Aste hasieratik eskabideak aurkezteko epea zabalik da; kasu gehienetan, otsailaren 16ra arte.

• Iggogailuen instalakuntza

Kopurua: eskaera bakoitzeko gehienez 1.000 euro.

Baldintzak: eskatzaileak etxebizitzaren jabe izatea edota igogailua 2023an edo oinarriok argitaratu aurretik jarria izan edo lehen erabilerara ziurtagarria edukitzea.

• Etxebizitzaren alokairurako

Kopurua: errentaren arabera eta gehienez urtebeterako.

Baldintzak: besteak beste, etxebizitza Usurbilen egotea, alokairu-kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea eta 900 eurotik gorakoa ez izatea...

• Kultur sorkuntzarako

Lagunduko diren egitasmoak: 2024ko arte eszenikoak eta performatiboak, arte plasti-

koak, musika-arteak, literatura-arteak, ikus-entzunezko arteak...

Kopurua: guztira gehienez 15.000 euro. Eskatzaile bakoitzeko gehienez 3.000 euro.

• Hasiz Hazi beka deialdia

Xedea: proiekturen bat duen Beterrri-Buruntzako ekintzaileari Kabiene elkartearen elkarlan-gunean egonaldia diruz laguntzeko deialdia.

Kopurua: 4.500 euro. Ekintzaile bakoitzeko gehienez 1.742,40 euro, urtebeteko egonaldia eginez gero.

• Merkatal lokal hutsetan jarduera ekonomikoak abiarazteko

Bi lerro ditu: hasierako gastuak eta lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzen laguntzeko.

Balorazio irizpideak: lehenetasuna izango dute, egun, herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuek, ixtera doazenek edo itxi berrien segida diren proiektuek.

• Desgaitasuna edo mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako
Kontuan hartuko diren tratamenduak: fisioterapia, terapia okupazionala, osteopatia, logopedia, psikomotritzitatea, psikoterapia-psi-

DOZENATIK GORA UDAL DIRULAGUNTZETARA AURKEZ DAITEZKE ESKABIDEAK

kologia, terapia bereziak eta optometria-terapia bisualak.

• Deserrotze edo bazterte sozialeko arriskuan dauden senideei erantzuteko

Xedea: erabaki judizialen ondorioz, herritik kanpo diren pertsonen senideen 2023ko joan-etorrien gastuetarako.

• Gizarte zerbitzuetako egitasmoetarako

Xedea: 2024an arloko egitasmoak burutzeko deialdia.

• Ingurumeneko egitasmoetarako

Lehentasunezko ekintzak: pobrezia energetikoko egoerak; energiaren kontsumoa murrizteko eta berriztagarriak ezartzeko egindako inbertsioak; dibulgazio ekimenak; bioaniztasun edota kutsaduraren inguruko proiektu eta ekintzen garapena...

• Kiroletako laguntzak

-Kiroel elkarten ohiko egitasmoetarako.

-Kiroel egokituko jarduerentzat.

-Kiroel elkartenak ez diren kirol jarduerentzat.

-Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntzak.

• Kultur egitasmoetarako

Xedea: "Kultura Sare eraldatzailea, dinamikoa eta parte-hartzailea sustatzea".

Kopurua: gehienez 95.000 euro. Parte hartzaileen diru-sarreradun ikastaroak %60 diruz lagunduko dira; irteerak %10, kanpamentu, udako ekintza txoko eta abarrak %60; gainerrako kultur ekintzak %95.

• Nekazaritza eta abeltzaintza arloetako egitasmoetarako

Diruz lagunduko diren lehentasunezko ekintzak: nekazari gazteen ustiapen berriak, Usurbilgo emakumeak nekazaritzan aritzeko ekintzak, ekoizpen ekologikoa sustatzeko egitasmoak...

"Lortutakoa ospatzen dugu, falta dena lortuko dugu"

Sei urteotako borrokagatik bidelagunak zoriondu eta eskertu nahi izan zituen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak 2018az geroztik astelehenero egin duen moduan, hilaren 15ean egindako mobilizazioetan. "Lortutakoa ospatzen dugu, falta dena lortuko dugu", iragarri zuten.

Batetik, "omenaldi zintzoa egiten diegu urte hauetan joan zaizkigun guztiei. Zorionekoak gara bizitzako etapa hau bearaikin partekatu dugulako". Bigarrenik, "gure arteko helduenei" ere gorazarre egin nahi izan zieten. "80 urtetik gorako pentsiodunak, 90 urtetik gorakoak, baita ehun urtetik gorakoak ere. Zuen jarrera guztiontzako eredia da. Astero zuen presentzia, eskubide sozialak defendatuz, zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezkoak defendatuz. Harro egoteko modukoa da guztiontzat".

Azkenik, sei urteotan asteleheneroko mobilizazioetan parte hartu dutenak zoriondu nahi izan zituen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak. "Historia egin duzue. Harro gaude erakunde sozial eta sindikalekin aberastasunaren bidezko banaketaren aldeko borrokan parte hartzeaz, eta soldatak, pentsioak eta zerbitzu publikoak hondatzen dituzten politika publikoak aldatzeko erreferente garrantzitsua izateaz".

Lorpenak

Urte hauetan guztietan lortutakoa ospatu eta "falta dena lortuko dugu" iragarri zuten. Gogoan dute duela sei urte hasi zuten borroka. "Urteetan pentsiodunak era txarrean tratatuak izan ondoren, Fatima Bañezek pentsioetan %0,25eko igoera aginduz eskutitza bidali zigan. Honek bazterrak harrotu zituen eta milaka pentsiodun kalera irten ginen borrokatzera. Sei urte geroago hala jarraitzen dugu", gogorarazi dute.



Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aditzera eman duenez, "borrokan jarraituko dugu geratzen zaizkigun aldarrikapenak lortu arte".

Denbora tarte honetan lortutakoa, ordea, ospatu egin nahi izan du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak; "2013ko PPre reformaren Pentsioen Errebalorazio Indizea (0,25ekoa) indargabetzea, Pentsio Sistema Publikoa (PSP) guztiz bideragarria dela erakustea, Iraunkortasun Faktorea indargabetzea eta gure pentsioak erdira murrizteko nahia eta erabaki berriak hartzeko ahalegina saihestea. Izan ere, aurten izango dugu %3,8ko igoera, galdutakoa konponduko ez duen arren, gure borroka lortu du".

Harrotasunez

Sei urte beranduago, "Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendukoek euripean nahiz eguzkipean, 275 astelehen geroago ere kalean jarraitzen dugula ospatzen dugu, pentsio publikoak, duinak, bidezkoak eta guretzako eta hurrengo belaunaldientzako nahikoak izan daitezten eskubidearen alde borrokan".

Horregatik, harrotasuna agertu du aipatu herri mugimendutik. "Harro gaude bidezkoa den aberastasunaren banaketaren aldeko borroka egiteaz eta erakunde sozial eta sindikalekin partekatzeaz. Baita soldatak, pentsioak eta zerbitzu publikoak hondatzen dituzten politika publikoek aldatzeko erreferente garrantzitsua izateaz ere".

Borroka partekatu gehiagotan

Pentsioen gaiaz gain, nabarmendu zuten, "osasu publikoari eta mendekotasuna artatzeko zerbitzu soziosanitario publiko komunitarioei laguntzeko mobilizazioetan parte hartzen jarraitzen dugu;

"BORROKA HAU IRABAZIKO DUGU. PENSIONISTAK AURRERA"

langileen soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko borrokei elkartasuna adierazi diegu. Euskal Herrian gizarte mobilizazioarako erreferente izatea lortu izana eta Estatuko beste Herri eta Erkidego batzuetako pentsiodunen elkarteekin mobilizazioak partekatzea ospatzen dugu".

Horregatik, aurrera begira, diotenez, "milaka arrazoi ditugu borrokan jarraitzeko. Onartezina da langileek, pentsiodunek eta, oro har, herri-tarrek ordaintzea bizitzaren igoerarekin, finantza-oligopolioen eta energia kudeatzailen mozkin errekorrak. Onartezina da gero eta pentsiodun gehiagok uko egin behar izatea oinarritzko premia aseztuari, hala nola, etxe eroak izateari, osasunerako eskubi-deari, elikadura osasuntsuari eta erretiroaren ondoren diru-sarrera duin eta nahikoak bermatuta izateari. Horregatik guztiagatik, azken sei urteetan eskatzen ari garen premiazko eta ezinbesteko aldarrikapenak eskatzen jarraituko dugu".

"Borroka hau irabaziko dugu"

Iaz eginiko ekimenak ekarri ditu gogora Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak eta horietan nola "gazteak eta adinekoak, jarduneko langileak, pentsiodunak, gizonak eta emakumeak, eskakizun bera dugu"; hain zuzen, "aberrastasunaren bidezko banaketa, soldaten eta pentsioen erosteko ahalmena berreskuratzea eta zerbitzu publikoak hobetzea". Horien bidez, iragarri nahi izan dutenez, "borrokan jarraituko dugu geratzen zaizkigun aldarrikapenak lortu arte, batez ere Gutxieneko Pentsio Duina eta nahikoa lortu arte".

Aipatu mugimenduak zabalduko oharrak urteotako aldarria gogorarazi du; "batak zein besteak gobernatu, guk pentsioak defendatu. Borroka hau irabaziko dugu. Pensionistak aurrera".



Usurbilgo Elkarguneko kideak etorkizuneko egoitzaren eremuan egindako agerraldian.

Kokagunea duen Elkargunea, eraikitzen

Udarregi ikastola pareko zelaian eraikiko dute Usurbilgo Elkargunea eta egoitza diseinatzeko parte hartze prozesua abiatuko dute otsailaren 3an. Xehetasunak aipatu bilguneko kide diren kultur nahiz aisialdiko eragileek eman dituzte egunotan, Udalarekin batera.

Usurbilgo Elkarguneko kideek agerraldia egin zuten urtarrilaren 19an apropos aukeraturiko herriko toki batean; anbulatorioa, Oiardo kiroldegia edota Udarregi ikastola inguratzeko dituen belardian hain zuzen. "Hemen eraikiko dugu Usurbilgo Elkargunea. Horregatik, elkartu gara gaur hemen", iragarri zuten.

Kokagunea horixe hautatzeko zergatiaren nondik norakoak azaldu zituzten Elkargunearen sustatzaileek. "Eraikina kokatzeko hainbat proposamen zituzten eragileek eta guztien

artearen Udarregi ikastolaren atzeko zelaia hautatu dugu, egokiena delakoan, bai espazioaren tamainaren aldetik eta baita arauen aldetik ere", Jon Mikel Azpiazu udal gobernu taldeko kideak azaldu zenez. Izan ere, "egun, indarrean diren arau subsidiarioek zein hasierako onarpena emana diogun plan orokorrak espazio horretan udal ekipamendu bat egitea aurreikusten du".

"Eraikitze konpromisoa"
Berriak eraiki aurretik, lehenik zeudenak eta erabiltzen ez

diren eraikinak berritzea lehenestea du "irizpide nagusizat" Udalak, udal gobernu taldetik adierazi zuten. Bistan denez, ordea, "kasu honetan Usurbilen ez dago eragileek irudi-

**"UDALAK ERAIKIN
EDO ESPAZIO
FISIKO BERRI HORI
ERAIKITZEKO
KONPROMISOA
HARTU DU"**

katutako espazio berri horren ezaugarriak betetzen dituen areto edo eraikinik. Beraz, eraikin berri bat egin behar da". Eta egiteko bidea zabaldu dutela berri eman dute udal gobernu taldetik. "Udalak eraikin edo espazio fisiko berri hori eremu horretan eraikitze konpromisoa hartu du". Argi du Udalak, herritarren hainbat beharrei erantzuteko balioa izango duela. "Udalak potentzialtasun handia ikusten dio proiektuari", adierazi zuten udal gobernu taldetik aipatu agerraldian.

Gazteak sustatzaile

Gune propio baten beharra aspaldidanikoa dela nabarmendu zuen Aztarrika gazte asanbladak. Zehaztu zuten, "Usurbilgo Elkargunearen proiektua gaztetxe baten beharra aldarrikatetik dator. Gazteok gure sentituko dugun espazio bat behar dugu herrian, herri mugimendua hauspatzeko eta indartzen jarraitzeko". Gunea bera topaleku izan daitekeela uste dute, "herriko eragileekin partekatze modukoa. Izan ere, sinetsita gaude elkarlanean diharduen gazte mugimenduak herrian eragiteko gaitasuna eta grina biderkatzen duela".

Argudio hauek tarteko, sustatu nahi zuten elkargune bat Usurbilen. Ideia Kulturguneari eta Ziortza gazte elkarteari eta Gaztelekuko ei aurkeztu zieten. Haien guztien lankidetzatik hasi dira irudikatzen hilabeteotan "herriko nerabeen, gazteen eta kultur gileen arteko lotura". Ildo honekin, "sinetsita gaude, kultur zein gazte eragileek gune bat partekatzeak herriko ekimen komunitarioak elikatzen lagunduko duela".

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrena 1, 1c Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Zuzeneko kulturaz zutik gozatzeko

Usurbilgo Kulturgunetik ere Elkargunearen beharra azpimarratu zuten, duela bi urte eginiko parte hartze prozesuan identifikatu zuten moduan. "Usurbilgo erdigunean ez daukagu gaur egun, zuzeneko kulturaz zutik gozatzeko aretorik. Halaber, sortzaileok ez dugu espazio partekaturik sormen proiekturik eraikitze-ko edota elkar ezagutzeko. Elkargunearen espazio berri horretan, helburu horiek asebate nahi lituzke Kulturgunean", herrian dauden gainerrako kulturaguneeen osagarri izan.

Espazioa gazteekin partekatzeari oso aberasgarritzat jotzen dute, gainera. "Euskal kulturaren transmisiorako erreferentziatzeko gunea izan liteke espazio hau Usurbilen bertan bilduko bailirateke, herriko nerabeak, gazteak nahiz hezitzaileak".

Espazio falta

Espazio baten behararekin bategin zuten baita Ziortzakoeak. Izan ere, urtez urte parte hartzaileen kopurua handitzen doakie. "Egun, hilero antolatzen ditugun ekintzetara gutxi gorabehera 130 gazte inguru gerturatzen dira. Aldiz, ez dugu hainbeste pertsona elkartzeko espaziorik". Askatasuna plazako estalpea baliatzen dute dinamiketarako, baina argi dute, "Elkargunean guztiok elkartzeko aukera izango genuke, eta gainera, herriko beste eragileekin batera antolagenitzake ekintzak".

Garapena hartuemanetan

Eragileekin hartuemanetan aritzea eta hori sustatzea "aberasgarriena dela" irizten dio-



Ikastola pareko zelaian eraikiko dute Usurbilgo Elkargunea.

te baita Gaztelekutik ere. "Udalak eskaintzen duen gizarite eta heziketa zerbitzu publikoa da. Bertan, 12-17 urte arteko nerabeen edo gazteen garapen konstruktiboa eta osasungarria sustatu nahi da, aisialdiko gune gisara. Sinetsita gaude garapen hori herriko gainerako eragileekin hartuemanetan sustatzea dela aberasgarriena herritarrentzat".

Elhuyarrek dinamizatua

Elkargunearen egoitza izango dena diseinatzen hastera doaz eta horretarako parte hartze prozesua iragarri dute. Emakumeen Etxea eta Kalezarko udal ekipamendua batuko

dituen Pelaiogenearekin egin bezala, honako hau ere Elhuyarrek dinamizatuko du. "Azken asteotan partaidetza prozesuaren xehetasunak lotzen aritu gara, begi bistatik galdu gabe, ekipamendu komunitario batek herritar guztientzat irisgarri izaten saiatu behar duela, proiektuak eta bertan gertatuko denak, egingo diren jarduerak ingurunearekin zuzeneko elkarrizketan landu beharko direla eta erabiltzaile izango diren norbanako eta eragileen parte hartzea sustatu behar dela", berri eman zuten Elhuyarrek ordezkari Idurre Zugazagastik ostiraleko agerraldian. Egitasmo honen sustatzaileei zuzenduta

" GAUR EGUN, ERDIGUNEAN EZ DUGU ZUZENeko KULTURAZ ZUTIK GOZATZeko ARETORIK"

"AZKEN ASTEOTAN PARTAIDETZA PROZESUAREN XEHETASUNAK LOTZEN ARITU GARA"

Elhuyarrek ordezkariak eskerrak helarazi nahi izan zizkien bidelaguneei, "beste behin ere guran konfiantza izatea-gatik eta horrelako ilusio eta gogoz jasotzeagatik".

Abiatzer den prozesuan parte hartzeko gonbita egin zuten agerraldira joandakoek, herriko gazteak eta kulturagileak erakusten ari diren inplikazioa eta parte hartzea nabarmen-tzearekin batera. Prozesuan sortutako edukia Udalak dituen komunikazio bide ezberdinetatik zabalduko dute eta bide honek emandako horretan oinarrituko dute, Kalezarko Pelaiogenearekin egin zuten moduan, "Usurbilgo Elkargunearen arkitektura proiektua". Udal gobernu taldetik ostiraleko agerraldian berri eman zuten zuzeneko, egitasmo honen idazketarako "enpresa lotzen ari gara une honetan".

Parte hartze prozesua

Saioen egutegia: otsailak 3 eta 24, martxoak 16, apirilak 20, maiatzak 18 eta ekainak 15.

Saioen ordutegia: 10:00-13:30.

Saioen lekua: Udarregi ikastolako jangela.

Jorratuko dituzten gaiak:

- Elkargunea ezaugarrituko duten balioak.
- Kudeaketa eredua.
- Barne-antolaketa.
- Nolako espazioa nahi den.
- Zer beharrei erantzun.
- Nola egituratu.
- Partaidetza prozesua amaitu eta eraikina izan bitarteko denbora horretarako dinamika eta egitekoak zehaztea.
- Elkargunearen izena.
- Beste esperientzia batzuen ezagutza.
- Dinamizatzailea:** Elhuyar.
- Sustatzailea:** Usurbilgo Elkargunea

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berritzatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Uraltz, s.l.
 Igeltseritza Orokorra

693 059 392
 uraltz@uraltz.com USURBIL



Aitor Izagirre eta Aritz Holgado, Irisasi BTTren antolaketa batzordeko kideak.

"Erreka zuloak eta halakoak ekidin nahi izan ditugu aurtengoan"

ARITZ HOLGADO ETA AITOR IZAGIRRE IRISASI BTT PROBAKO ANTOLATZAILEAK

Igandean izango da aurtengo Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proba. Mendiaz eta bizikletaz gozatzeko aukera paregabea kirol hau gustuko duten herritarrentzat.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen, urtarrileko kirol proba nagusia, igande goiz honetan jokatuko da. Andatza inguruan lokatzaz eta bizikletaz gozatzeko aukera paregabea proba ez lehiakor honetan.

NOAUA! Igandean izango da aurtengo Irisasi BTT. Badakar berrikuntza nabarmenik?

Aitor Izagirre: Ez. Urteroko planteamendu berarekin jarraituko dugu Andatzan.

Zein izango dira bi ibilbideak eta zenbat kilometro izango dituzte?
Aritz Holgado: Helburua Andatzan bertan gora eta behe-
ra ibiltzea da, oso urrutira joan beharrik gabe. Askotan Zizur-

kileraino edo beste mugetaraino joan izan gara ibilbideak hara eramanda, Orio aldera. Gehienbat Andatzan bertan zehaztu dugu bidea.

A.I: Hasieta urteroko leku beretik izango da, Txokoaldetik gorantzako bidea hartuta. Andatza barrura sartuko gara hortik eta Andatzan bertan jira eta buelta ibiliko gara. 30 kilometrokoa izango da luzea eta 25 kilometrokoa laburra.

Bi ibilbideak gutxi gorabehera leku beretik pasatuko dira edo bi bide erabat ezberdin izango dira?

A.I: Hasieta bera dute, baina bidearen erdian banandu egingo da. Luzea hautatu du-

tenek gorantz jarraitu behar-
ko dute eta laburra hautatu
dutenek beherako joera har-
tuko dute puntu horretatik
aurreraz erdiko pista hartu eta
Zubieta aldera jota.

A.H: Bidea bereizten den pun-
tu horretan, bide laburraren
punturik altuenean, postu bat
jarriko dugu zerbait hartzeko.

**"HELBURUA
ANDATZAN BERTAN
GORA ETA BEHERA
IBILTzea DA, OSO
URRUTIRA JOAN
BEHARRIK GABE"**

Eguraldia ez da inoiz arazo izan, baina zein da egoera onena proba hau egiteko?

A.I: Hotza izango da, hori ziur. Lokatza ere nahiko gustuko du jendeak, baina neurri bateraino. Antolakuntzan gazte talde bat sartu gara aurten, eta gure helburuetako bat gehiegizko lokatza sortzen den leku horiek pixka bat alde batera uztea izan da. Antolakuntzan lehen zebiltzatenek bilatu egiten zituzten zuloak eta lokatz leku horiek, baina gure apustua bestelakoa izan da. Erreka zuloak eta halakoak ekidin nahi izan ditugu, nahiz eta lokatza gustatzen zaionak ere lokatza izango duen. Urte sasoi honetan lokatzik gabeko biderik ez da.

Partehartzaile izatetik antolakuntzara pasatu zarete, beraz.

A.H: Aurten ezingo dugu proban partehartu dena antolatzen lan ugari izango dugulako: bideak itxi, postuak prestatu, bideak txukundu... egunero mendian izaten gara bizikletarekin eta Andatza urteko egun guztietan gozatzeko aukera dugunez, egun batean ez ibiltzeagatik ez zaigu ezer gertatuko.

Izen-emateari erreparatuta, joan zen urtekoa baino partehartzaileragoa izango da edo jende gutxiago ibiliko da?

A.I: Aurten, elkarrizketa hau egiten ari garen honetan (urtarrilak 16), badirudi joan zen urtean baino jende gutxiago ari dela animatzen. Gainontzeko herrietako probetako antolatzaileekin badugu kontaktua eta haiek ere beherakada nabaritu omen dute.

Beharakada horren arrazoia zein izan daiteke? Geroz eta jende gutxiagok egiten duela kirol hau? Afizio handia dagoela esango zenukete mendian bizikletan ibiltzeko?

A.I: Pandemia eta gero, izugarrizko gorakada nabaritu genuen. Kaleko kirolek indar

handia hartu zuten garai hartan. Bizikleta erostera joan eta ilara luzeak aurkitu nituen, eta bizikleta iristeko urtebete. Stock falta ikaragarria nabari zen. Probetan izena emateko garaian ere arazoak jende gehiegi zegoelako.

Herritar askok hartzen dute parte? Orokorrean partehartzaileen profila nolakoa da (nongoak dira, emakumeen partehartzea...)?

A.I: Esango nuke denetik dagoela. Jende nahiko heldu dezente ikusten da, gazteak ere animatzen dira eta neskek ere gerroz eta gehiago ikusten dira. Mendian baino gehiago alde hauek errepidean nabari dira.

A.H: Herriko jende gehiegi ez dugu ikusten Irisasin. Uxue Trail edo Baxurde Krosean jende gehiago egoten da. Egia da jendeak orokorrean errazago emango duela izena, distantzia laburreko lasterketa batean 30 kilometroko mendi bizikleta proba batean baino. Normalean, ez bazara mendian bizikletan ibiltzen, zaila da horrelako proba batean izena emateko erabakia hartzea. Aurtengo Irisasi antolatzeke Andatzen bizikletan ibiltzen garen batzuk elkartu gara, eta guk ez dugunez parte hartuko, herritar gutxi izango da.

Nerabe edo gazteak ere atzetik badatozela ikusten duzue mendian bizikletan ibiltzen direnak?

A.H: Ez gehiegi edo nahi beste. Probarako mendia garbitzeko lanetan denbora pixka bat badaramagu, eta helburua da txukun mantentzea nahi duenak aurrerago ere aukera izan dezan kirola hau probatzeko, Zizurkileraino joan beharrik gabe.

A.I: Orain arte, Irisasirako mendia txukuntzen zuten sasiak kenduta, baina hori ez bada mantentzen, bide hori itxi eta galdu egiten da. Gure helburua da garbiketa egin ondoren, hori mantentzea denok bide horiek aprobetxatzeko aukera izateko.



Bi lagun lokatzez leporaino beteta Irisasi BTT probaren amaieran. IRISASI BTT

Nola hasi zineten zuek kirol honetan?

A.I: Gu biok lehen eskubaloian ibiltzen ginen eta utzi genuen, zerbait ezberdina probatzeagatik honetan hasi ginen. Modan zegoen herrian bizikletan ibiltzearen kontua; beraz, bizikleta erosi eta horrela hasi ginen. Asko gustatu zitzaigun eta horretan jarraitzen dugu.

A.H: Hasiera batean, jendeak errazago ikusten du errepidea, baina autoek inpresioa egin dezakete eta beldur hori sortu. Mendian ez dago horrelako arriskurik, ez bazara oso azkar eta bururik gabe ibiltzen. Errepidean segurtasuna ez dago erabat zure esku, baina mendian bai.

Maillotak hartzeko aukera izan da azken egunotan. Orain arte hartu ezin izan duenak egunean bertan aukera izango du jasotzeko? Zer egin beharko luke halako kasuan?

A.H: Maillotaren neurria aukeratzeko epea jada pasa da. Hortik aurrera, neurri askota-

ko maillotak dauzkagu. Neurri jakin bat amaitzean, amaitu egin da eta beste bat hartu beharko da. Ezin dugu ziurtatu bakoitzak nahi duen neurria izatea epearen barruan eskatu ez bazuen. Igandean ere aukera egongo da proba hasi aurretik maillota hartzeko, baina tokatzen den neurrikoa izan beharko du. Poltsak eta dortsalekin ere berdin, egunean bertan jasotzeko aukera egongo da.

Partehartzaileek poltsa bat jasoko dute opari. Zer aurkituko dute bertan?

A.I: Maillota, jogurta, bizikletaren katearentzat koipea eta laguntzaileen produktuak. Poltsan dezente gauza aurkituko dituzte partehartzaileek. A.H: 25 euroko prezioa jarri genuen. Janaria eta edaria nahi adina eskaintzen dugu, maillota eta poltsako produktuak... Normalean, maillot batek 25 euro baino gehiago balio du. Jendea horregatik animatzen da asko, prezio hori ordainduta, opari asko

"EZ BADUZU MENDIAN IBILTZEKO OHITURARIK, ZAILA DA HORRELAKO PROBA BATEAN IZENA EMATEA"

"ERREPIDEAN SEGURTASUNA EZ DAGO ERABAT ZURE ESKU. MENDIAN ORDEA, BAI"

izaten dutelako. Jatetxea eta tabernek produktu asko ematen dituzte. Ilusioa egiten du hainbeste gauza jaso eta zozketan ere zerbait irabazteko aukera izateak.

Produktu batzuk ere zozketatuko dituzue. Noiz izango da zozketa? Zerbait gehiago ere zozketatuko duzue?

A.I: Zozketako sari banaketa proba amaitu ondoren izaten da. Zerbait esateagatik, eguerdiko hamabiak aldera. Normalean, proba egin bitartean zozketa egiten dugu eta partehartzaileak amaierara iristean, aukera izaten du begiratzeko dortsal zenbakiarekin ea zerbait tokatu zaion. Behin jakinda zerbait tokatu zaion, sari banaketa ekitaldian jasoko du oparia.

Aldaketak trafikoan

Bizkarreko herri-sarrera itxita egongo da igande honetan, goizeko 08:00 eta 14:00etara. Herrirako sartu-irteerak San Inaziotik egin behar dira.

Donostia-Zumaia autobusak ere, San Inazioko biribilgunean geldituko dira tarte horretan.

Ibilbidea.

Usurbilgo frontoitik Bordatxo taberna aldera joko dute txirrindulariek eta handik behera, Santuenera, Bizkarreko zubitik. Santuenetik Txokoalde aldera hartuko dute gero.

Itzuleran, Santuenetik Kale Nagusira eta elizaren izkinatik iritsiko dira Dema plazara.



Antxon Zubeldia Maizen senideak omenaldian, Eskaut Gia Tanborradakoekin.



Antxon Zubeldia Maiz argazkiaren ezker aldean, danborradetako batean.

Antxon Zubeldia omendu zuten San Sebastian egunean

Merezitako omenaldia egin zioten San Sebastian egunez iragan ekainean zendu zen Donostiako Eskaut Gia Tanborradako kide izandakoari. Antxonek eginiko ekarpenagatik bilgune inklusibo honen eskertza jaso zuten senideek.

"Danborrek jotzen jarraituko dute". Hitz hauekin oroitu eta agurtu nahi izan zuten Donostiako Eskaut Gia Tanborradako lagunek iragan ekaina hasieran zendu berri zen bilguneko kide Antxon Zubeldia Maiz usurbildarra. Bera zendu osteko lehen San Sebastian eguna ospatu dute asteburuan Gipuzkoako hiriburuan eta, nola ez, Zubeldia omentzeko tartea hartu dute. Albiste honi atxikia dituzue herrikide batek helarazi digun argazkietako batean, danborrada horretako kideekin batera Antxon senideak, asteburuan egin dio-

ten merezitako omenaldi ekitaldi hunkigarrian. Oroigarria eta lore-sorta eman zioten Antxonon amari. Segidan datorren argazkian ageri da Zubeldia bera, danborradan parte hartu zuen urteetako batean.

Ibilbide luzeenokoa

Izan ere, usurbildarra Donostiako Eskaut Gia Tanborradako kidea zen. Sustatzaileek gogorarazi moduan, "Scout- ez eta gidariz osatutako danborrada bat gara". Historikoa, kideen esanetan. "Eskaut Gia da, alde handiarekin, ibilbide

luzeena egiten duen danborrada. Egian hasi eta bertan amaitzen da, Grosetik, Alde Zaharretik eta Erdialdetik igaro ondoren". Aitzindaria da baita. "Gurea sortzez mistoa den lehen danborrada da, baita Danbor Nagusia emakumea duen lehena ere. Beti

OMENALDIAN, OROIGARRIA ETA LORE-SORTA EMAN ZIOTEN ANTIXONEN AMARI

danborrada inklusiboa izan gara, desgaitasun fisikoak edo psikikoak dituztenak baztertu gabe. Mundu guztiarentzako zabalik dago".

Lehen danborrada inklusiboa

Estreinakoz 1982. urtean irten ziren, "nahiko modu inprobisatuan danborrada hau martxan jarri zen urtean. Ikastola batek utzitako materialarekin irten ginen, atzera-martxarik ez zuen auto baten gainean jarrita genuen musikarekin besterik ez, eta kaleko arropa izan zitekeen uniforme batekin: jertse urdina, galtza zuriak eta txapela".

Egun, bestelakoa dute janzkera, "Murchanteko Las Peñas Txaranga gurekin doa giroa animatzen".

Taldean izan da aldaketarik hamarkada hauetan. "Pertsona batzuk jada erretiratuak eta beste batzuk aktiboan, Aratz eta Iruzan taldeetan lanean ari direnak. Denboran zehar mugimenduarekin loturarik ez duten pertsonak ere hasi dira danborradan parte hartzen. Ez gaude elkarte bati lotuak eta ez gara auzo jakin batekoak".

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
PATXI
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Zubietako erraustegia hizpide izaten ari dira asteotan, Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Erraustegia hizpide Batzar Nagusietan

Erraustegitik Nafarroako Artaxoara garraiatutako hondakinak hizpide izan zituzten hilabete hasieran, Batzar Nagusietako osoko bilkuran. Hilaren 29an, berriz ere ahotan hartuko dute aipatu planta. Izan ere, bertan ezarri nahi duten hidrogeno berdearen ekoizpena mintzagai izango dute.

EHBilduk egindako galdera bati erantzunez Nafarroako Gobernuak urte amaieran baieztatu zuenez, Zubietako erraustegitik Nafarroako Artaxoa udalerrian kokaturiko Ecofert Sansoain SM enpresara hondakinak garraiatu zituzten bertan kudeatzeko eta hondakinok "kode okerra" duela zioen Jose Maria Aierdik (Geroa Bai) gobernu horretako ingurumen kontseilariak. Horrez gain, Zubietako erraustegian kode horretako hondakinak ekoizteko baimenik ez duela zioen. Hondakinon jatorri eta ezaugarriak aztertzeke espedientea ere zabaldu zuten Nafarroako Gobernuak. Gaia urte hasiera honetan Batzar Nagusietara heldu da, EHBilduk hilabete hasierako osoko bilkuran, Jose Ignacio Asensio foru diputatuari egi-

niko interpelazioaren bidez. Aipatu Artaxoako enpresak "nekazaritzako ongarrirako konposta sortzen du. Hortaz, kezkarria da nekazaritzako produkzioarako, eta beraz, elikagaien ekoizpenerako bideratutako produktu batek erraustegi batean sortutako hondakinak jasotzea. Ez dirudi hondakin horiek arriskutsuak ez direla aztertu edo egiaztatu denik", zioen Jon Altolagirre batzarkideak.

"Baimendutako kodea"

Lixibiatuok erraustegikoak direnik ukatu zuten Asensio, "tratamendu horrek ez duela lixibiatu sortzen. Tratamendu mekaniko biologikoko instalazioko tratamendu aerobikotik datorren lixibiatua da", bere esanetan, ingurumen baimen bateratuan

jasoa dagoena. Ildo beretik, gaineratu zuenez, "Eusko Jaurlaritzak baimendutako kodea du" eta horren bidez, gai honetan eskumena duen "Jaurlaritzaren baimena du kanpo kudeaketa egiteko". Kodeok "betijatorriaren arabera zehazten dira" zehaztu zuten. Honenbestez, zioenez "ez da zuzena esatea, kodea ez dela egokia". Nafarroako Gobernuak nahastu egin zela adierazi zuten, "hor dago akatsa nire ustez".

"EZ DIRUDI HONDAKIN HORIEK ARRISKUTSUAK EZ DIRELA AZTERTU EDO EGIAZTATU DENIK"

Erraustegian aurrera begira arazorik sortzen bada, orain arte bezala jardungo dutela iragarri zuen, "espedienteak irekiz eta instalazioak beti bezala funtzionatzen jarrai dezaten behar bezalako neurriak hartuz, behar badira noski". Kontrol publikoa "gardentasun osoz" egiten segiko dutelagaineratu zuten Asensio.

Gardentasun eskaera

EHBilduko ordezkariak adierazi zuenez, Zubietako erraustegiak urteotan arazo bat baino gehiago izan duela zioen eta "badagoela kezka bat eta funtzionamendu arazoak", urteotan ezagutzen joan direnak. "Herrialdeko lehen indar politiko moduan, jarraipen zorrotza egin beharko diegu kontu hauei guztiei; argi dago hondakinen politikak, gardentasuna eta zorrotasuna behar duela izan".

Hidrogeno berdea

Erraustegiaren gaia berriz ere hizpide izango dute laster, Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Izan ere, urtarrilaren 29rako 9:30etan Jasangarritasun Batzordea bilduko da. Saioko hizpideen artean, Elkarrekin Gipuzkoako batzarkideen taldeak eskatutako Jasangarritasun Departamentuko foru-diputatu Jose Ignacio Asensioaren agerraldia izango da. Oraingo honetan, "Zubietako erraustegian instalatuko den hidrogeno berdearen ekoizpena" hartuko dute ahotan. "Eskatzen dugu zehatz azaltzeko zergatik erabaki den Zubietako erraustegian hidrogeno berdea ekoizteko proiektu bat bultzatzea, norekin kontratatu den proiektu hori, zenbat energia erabiliko den prozesuan eta ea bateragarria den gaur egun hondakinak erretzetik sortzen den elektrizitatetik abiatutako balorizazio energetikoarekin. Azkenik, zer hidrogeno kantitate ekoiztea aurreikusten den eta hidrogeno hori zertarako erabiliko den azaltzea eskatzen dugu".



Euskal Herriko zazpi herrialdeetako sagardogile elkarteek eta administrazioek Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren aldeko apustua egin dute. ARGAZKIA: IREKIA.EUS

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak muga guztiak gaindituko ditu

'Euskal Sagardoa/Sidra del País Vasco, Cidre du País Basque/Euskal Sagarnoa' izango da mugaz gaindiko Jatorri Deituraren izena. Bruselako oniritzia jaso ondoren, Nafarroako sektorea gehituko da jatorri izendapenera.

Euskal Sagardoa Jatorri Deitura duela sei urte sortu zen eta aurten urrats esanguratsu bat emango du. Zuberoko, Behe Nafarroako eta Lapurdiko sagar eta sagardogileek Jatorri Deiturako kide izateko borondatea agertu dute. Dagoeneko, izena partekatzen dute eta baita sagardoa bera ere.

Azkenaldian ordea, Pirinioetako bi aldeetako sektoreak proposamen bat lantzen aritu dira, INAO (Frantziako Jatorri eta Kalitatearen Institutu Nazionala) eta HAZI-ko teknikarien laguntzarekin. Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Herria Hirigune Elkargoaren koordinazioa eta babes bereko ere jaso dute. Behin akordioa lortuta, Frantziako eta Espainiako Ministerioei helarazi zaie

proposamena eta hauek prozedimendua martxan jarri dute, herrialde bakoitzeko tramitazioak pasa eta Europar Batasunerara bidaltzeko.

Lehena European

Baimen administratibo guztiak jaso ondoren, jatorri deituraren izapidetza Bruselarekin ixtear da. Euskal Sagardoaren sektoreko ordezkariak aditzera eman dutenez, "European ez dago mugaz gaindiko araudi bakarreko bestelako Jatorri Deiturarik eta hau izango da ezaugarri honekin jaioko den lehena".

Honen guztiaren berri emateko, agerraldi bat egin zuten aurreko astean Donostian. Bertan izan ziren Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasanga-

ritasun eta Ingurumen sailburua; Joseba Erramundeguy Euskal Herria Hirigune Elkargoko kontseilaria; Jose María Aierdi Nafarroako Landa Garapen eta Ingurumen sailburua, Unai Agirre Euskal Sagardoa jatorri izendapenerako zuzendaria eta Bixintxo Aphaul Domaine Bordatto-ko sagardogilea.

Mugaren bi aldeetako sagar motak ere Jatorri Deituran sartzea adostu da araudi bakarraren barruan.

"EUROPA OSOAN HAU IZANGO DA MUGAZ GAINDIKO LEHEN JATORRI DEITURA"

Nafarroa ere batzekoa da

Pirinioetako mugaz gaindiko Jatorri Deitura duen lehen edaria izango da Euskal Sagardoa. Araudi berdina izateaz gain, kudeaketa eta zertifikazioa ere bateratuta egitea adostu dute eta horretarako HAZI-ko Kontrol eta Zertifikazio arloa dagoeneko hasia da INAOrekin harremanetan Frantzia ere homologatua izateko eta Jatorri Izendapeneraren zertifikazioa HAZIK egin dezan.

Bestalde, Bruselako oniritzia jaso bezain pronto Nafarroako sektorea Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako kide izatera pasako da. Nafarroako sagar eta sagardogileak ere Euskal Sagardoan sartzeko prozedurari heltzeko konpromisoa hartu dute Kontseilu Arautzailerak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak.



Datorren astelehenean, hilak 29, zabalduko da izen-ematea. QR kodearen bidez egin daiteke.

Ziortzak hiru eguneko irteera antolatu du LH5 eta LH6ko gazteentzat

Apirilaren 2tik 4ra Zarauzko Igerain aterpetxean izango dira. Izen-ematea datorren astelehenean zabalduko da.

Aurreko urtean antolatutako ekintzak arrakasta handia izan zuenez, elkarbizitza saio berri bat antolatu du Ziortzak datorren Aste Santuari begira. "Gure aisialdi eskaintza LH5 eta LH6ko gazteei zabaltea erabaki dugu".

Apirilaren 2tik 4ra, Zarauzko Igerain aterpetxean izango dira. Hiru egun horietan "ekintzez beteriko programaketa zabalaz gozatzeko aukera izango dugu", Ziortza gazte elkarteak aditzera eman duenez. "Beraz, elkarbizitzan parte hartzerantz animatu nahi zaituztegu, primeran pasako dugu".

Izen-ematea

Izen-ematea egiteko epea urtarrilaren 29an irekiko da, arratsaldeko 17:00etan, eta otsailaren 2an amaituko da. "Beraz, izena eman nahi baduzu, ondorengo estekako galdetegia bete: <https://forms.gle/47WYq6ZKKd5Ywt8J6>".

Plaza kopurua, mugatua

Plaza mugatuak direnez, "eskaintako guztiak betetzean, ondoren izena ematen dutenek elkarbizitzara etortzeko aukerarik ez lukete izango. Plazak izen-ematearekin batera es-

leituko dira; hau da, ez da zozketarik burutuko".

Behin epea itxi eta gero, izena eman duten gaztetxoek gurasoekin bilera bat egingo da. Bertan informazio gehiago helaraziko dute Ziortza-koek. "Irteera eta itzulera orduak, eraman beharrekoak eta abar".

"ELKARBIZITZAN PARTE HARTZERA ANIMATU NAHI ZAITUZTEGU"

Elkarbizitza ariketa

- Noiz: Apirilaren 2tik 4ra.
- Non: Igerain aterpetxean (Zarauz).
- Nori zuzendua: LH5 eta LH6ko gaztetxoei.
- Informazio gehiago: ziortzakanpaldia@gmail.com
- Prezioa: gazte bakoitzeko, 65 euro. "Bi gau eta otorduak barne (lehenengo eguneko bazkaria etxetikeraman behar-ko da).

Garraioari dagokionez, "baliteke garraio publikoa erabiltzea aterpetxera gerturatzeko, kasu honetan, kostu honen ardura ez luke Ziortza Gazte Elkarteak hartuko". Honi buruzko xehetasunak aurrerago emango dituzte.

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

943 361182
EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL



Mikel Laboa plazan ospatuko da, otsailaren 3an.

Jontxu Rock, Uribe oroitzeko bere heriotzaren 10. urtemugan

Kezka, Elektropapo, Izeberg, Viafara, Ameba eta Odolaren Mintzoa taldeek joko dute otsailaren 3an

Hamar urte bete berri dira Usurbilek Jon Uribe Navarro, Jontxu ahaztezina agurtu zutenetik. Bere heriotzak herria hunkitu zuen. Hala jaso zuen hedabide honek 2014. urte hasieran. "Hunkigarria izan da

egunotan Usurbilen bizitakoa. Guxtitan ikusiko da, herritar batek hainbesteko jendetza biltzea bere azken agurrean. Hainbesteko zirrara eragitea, kalean, sare sozialetan, herrian... Usurbilen eta usurbil-

darren artean a zer nolako hutsunea utzi duen. Eta bere heriotzak herritarrak nola hunkitu dituen izugarria izan da".

Hil berritan, bera oroitzeko txoko propioa eraiki zioten bere irudiarekin, senide, lagun eta herrikideek Sutegi atarian, maitasun beteko agur mezuak etengabeak izan ziren; "Pertsona gutxi dutelako herri oso baten maitasuna eta miresmena lortzeko abilezia! Gero arte Jon!", "Jontxu ez zaitugu ahaztuko", "Beti egongo zara gure bihotzetan Jontxu!", "Jon beti gure bihotzean!", "Izar handi bat piztu zaigu zeruan. Beti egongo zara gure bihotzetan Jon!", "Beti egongo zara usurbildarron bihotzetan Jon! Animo asko familia osoari!"...

Ordutik, urtero esekitzen du kalezartarraren omenez, bertako Jai Batzordeak "Edonon egonda ere, San Juanetako su eta jabe!" dioen pankarta handia bere irudiarekin festetan. Bi urtemuga borobiletan ere Uribe oroitzeko egunak antolatatu zituzten. Lehenengoa, Jontxu zendu eta urtebetera, 2015. urteko urtarrila hasieran; jolasak, poteo musikatuak, bazkaria egin zuten ikastolan eta ondoren omenaldia eta herri-

ko taldeen kontzertuak Aska-tasuna plazan.

Herriko taldeen gorazarrea

2019ko otsailean, juxtu Jontxu zendu zela bost urte bete zirenean bere oroimenari bizirik eusten dioten lagun talde anitz eta jendetsua batu zuen Kalezarren bertako Jai Batzordeak; herri-kirolak, bertsolariak giroturiko bazkari herrikoia eta Haraneko aparkalekuan egokitu zuten karpagune handian, Jontxuren lagun kuadrilla handia batu zen. Tartean, herriko musika taldeek kontzertu gau luzea eskaini zuten. Izan ere, haien lokaletako entseguak, kontzertuak, urte luzez gertutik jarraitu zituen Jontxuk.

Uribe zendu zenetik hamar urte bete diren honetan, urtemuga borobil hau ez da oharkabea igaroko. Jontxu Rock antolatuko dute bere omenez otsailaren 3rako, larunbaterako. Arratsaldeko 19:30etan hasita Mikel Laboa plazan herriko musika taldeen kontzertuok eskainiko dituzte Uriberen omenez: Kezka, Elektropapo, Izeberg, Viafara, Ameba eta Odolaren Mintzoa taldeek.

Andatza Ezkeltzu Bizirik, Euskal Herria Bizirik sarean

Otsailetik maiatzera hainbat ekimen iragarri dituzte; tartean, topaketa eta manifestazio nazionala Azepeitian

Euskal Herria Bizirik sarea aurkeztu dute. Sare horretako kidea da Andatza Ezkeltzu plataforma, hainbat norbanakorekin eta bilguneekin batera: Makatzak Arratia, Interkonexio elektrikorik ez, Enkarterrin Makroelikorik Ez, Oletan ere ez!, Sañu Bizirik!, Mendieta Eolikorik EZ-Barakaldo, Aiaraledko

Mendiak Bizirik, Araba Bizirik, Larramendiko arnasa, Arabako mendiak aske, Karakate bizirik, Haizeak Bizirik (Bortziri-Malerreka) eta Errezil Bizirik!.

Eragile guztiok "helburu bat partekatzen dugu: ingurune naturalaren babesa, trantsizio energetiko deszentralizatu eta kudeaketa komunitarioa-

ren defentsa, landa-eremu bizi eta funtzionala bermatzea, nahiz planetaren muga biofisikoak gaintu gabe, baliabide naturalen aprobetxamenduen unibertsaltasuna, lankidetzeta, ondasun komunen zaintza eta erabakiguneen deszentralizazioa ezaugarri izango dituen gizarte baten alde aritzea".

Otsailetik maiatzera, bestalde, hainbat ekimen iragarri dituzte; tartean, lurraren defentsan diharduten taldeen eta norbanakoen topaketa eta manifestazio nazionala apirilaren 13an Azepeitian.

Parke eolikoa

2022ko otsailean izan genuen Ezkeltzun eraiki nahi duten

parke eolikoaren berri. Gero-ra, Andatza-Ezkeltzu Bizirik! herri plataforma sortu zuten. "Green Capital enpresak Ezkeltzu inguruan parke eoliko bat eraikitzeke ekimena aurkeztu du. Ia 200 metroko altuerako errota erraldoiak eta errepide zabalak jasotzen dituzten proiektuak", berri eman zuten bilgune hartatik, iazko ekainean Andatza hegoaldean kokaturiko Ezkeltzura antolaturiko txangoan. Hitzordu hartan, zentral eolikoak bertako ondare natural eta kultural aberatsa nola kaltetuko duen ohartarazi zuten, ingurune ederra sakonago ezagutzearekin batera. Galera oso larritzat jo zuten parke eolikoak eragin dezakeen kaltea.

Ugartondon auzokonposta egiteko aukera

Interesdunentzat izen-emateko epea otsailaren 9ra arte egongo da zabalik

Organikoa Ugartondon bertan konpostatu nahi duten bertako bizilagunei zuzendua dago deialdi hau. Talde bat osatzeko aukera eskaini nahi die Udalak. Egitasmoaren berri emateko gutuna helazi zaie jada. Gogoan izan, duela hamaika urte abiarazi zuen Udalak auzo konposta lantzeko egitasmoa. Herriko hainbat txokoetan bideratzen dute organikoaren lanketa komunitarioa. Horrek organikoa biltzeko garraioa behar izatea saihestuko duenez, “mesede egiten dio ingurumenari. Horrez gain, auzokonposta egiten dutenek bestelako abantailak ere badituzte: batetik, organikoa edozein momentutan botatzeko aukera dutela, eta, bestetik, hondakinen tasako zati finkoan %40ko hobaria jasotzen dutela”.

Ikastaroa jasotzeko aukera

Gauza bera egin nahi dute orain Ugartondon. “Lur pro-

piorikez duen edozeinek eman dezake izena, eta hala eginez gero, ikastaroa jasoko dute auzokonpostaren funtzionamendua ezagutzeko. Talde bakoitzean arduradun bat izendatzen da, hiru hilero aldatzen joaten dena: bere arduraz izango da denek botatuko materia organikoa nahastu eta udalak eskuragarri utzitako materia lehorra gainetik botatzea; astean bizpahiru aldiz egin behar izaten da hori”.

Izen-ematea zabalik da

Interesdunentzat izen-emateko otsailaren 9ra arteko epea ireki du Usurbilgo Udalak. Horretarako, bideok daude: atezate@usurbil.eus / 606 501 024 / udaletxeko atez ateko bulegoan. Izen-ematerakoan, nor bere izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa eta etxe bakoitzeko lagun kopurua zehaztu beharko du.



“Lur propiorik ez duen edozeinek eman dezake izena, eta hala eginez gero, ikastaroa jasoko du”. Argazkia artxibokoa da.

Energia aholkularitza zerbitzua martxan da

Doako udal zerbitzu hau klima eta energia trantsiziorako teknikariak eskainiko du. “Zerbitzu horren bidez, batik bat, herritarrek argindarraren faktorei buruz zein energia berriztagarri buruz izan ditzaizketen zalantzak argitu ahal izango dituzte”. Ordu eta lekuotan eskainiko da doako energia aholkularitza zerbitzua:

Udaletxean:

Asteartetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara.

Energia aholkularitza

zerbitzua, herri-auzoetan:

Astelehenetan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

- Zubietan (Kaxkapen): hilabeteko lehenengo astelehenean.
- Santuenean (auzo elkatearen lokalean): hilabeteko bigarren astelehenean.
- Aginagan (Eliza Zaharrean): hilabeteko hirugarren astelehenean.
- Kaxkoan: hilabeteko laugarren astelehenean, 09:00etatik 13:00etara udaletxean; 16:00etatik 19:00etara, Potxoeanean.

Hitzordua hartzeko:

943 37 19 51
iromero@usurbil.eus

Turismo gidarien lan-poltsa osatzeko deialdia

NOAUA! Kultur Elkarteak 650 Usurbil Bizi turismo proiektuaren baitako bisita gidatuak egiteko gidarien lan-poltsa osatu nahi du. Kultur elkarte honek orduko kontratua eskaintzen du. Bisitekin urteko egutegia dute. Asteburuetan erlanerako prestasuna behar da. Honako betebeharrak ezarri dira:

- Komunikaziorako gaitasuna izatea: turismo, kultura, ko-

munikazio edo jarduera soziokulturalekiko interesa edo esperientzia kontuan hartuko da.

- EGA edo baliokidea izatea eta gatzeleraz aritzeko arazorik ez izatea.
- Atzerriko hizkuntzen ezagutza: ingelera edo/eta frantsesaren ezagutza beharko da.

Beste alderdiok ere baloratuko dira:



Bisita-gidatuak egiteko gidarien lan-poltsa osatu nahi da.

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna.

- Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeko gaitasuna edukitzea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea.
- Herrigintzan esperientzia izatea.
- Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneen eta sare sozialeen kudeaketan ezagutza izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Interesdunek urtarilaren 29a baino lehen helarazi behar dute curriculuma elkarte@noaua.eus helbidera.



Odol Emaileen Egunean omendutako herritarrak.

Zortzi odol emaile omendu dituzte

Usurbilgo Odol Emaileen elkarteak zortzi herritar omendu zituen igandeko Odol Emaileen Egunerako antolatutako bazkarian.

Usurbilgo Odol Emaileen Eguna izan zen igandean. Elkarteak antolatutako bazkarian dozenaka lagun elkartu ziren Antxeta Jatetxean. Bazkari bikaina osatu zuten, eta ondoren, hitz batzuk esan eta zortzi herritar omendu zituzten euren odol ematean lortutako zifrengatik: 25, 40, 50 eta 75 odol emate.

25 odol ematerekin lortzen da lehen saria. Gizon eta emakumeen kasuan, ordea, ezin dira datuak berdintzat hartu, izan ere, emakumeek urtean hiru odol emate egin ditzakete gehienez, eta gizonek lau. Beraz, sarituak izateko garaian ere, kontuan hartzen da alde hau.

"Inoiz ez gara gehiegi"

Odol ematearen garrantzia azpimarratu dute elkarteko kide eta odol emaileek. Adin nagusiko biztanleriaren gehien-goak eman dezake odola, salbuespenak salbuespen, eta osasun zentroentzat ezinbestekoa nahikoa odol izatea. Azken urteetan, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak eta Usurbilgo Odol Emaileen elkarteak ere odol emaile gabezia maiz aipatu dute, eta oraindik ere beharrak jarraitzen duela esan dute: "inoiz ez gara gehiegi".

Era berean, odola ematea erraza eta azkarra dela jakinarazi zuten eta bizitzak salbatzen laguntzen dutela. Beraz, odo-

la ematera animatzeko deia egin dute elkartetik. Bi hilean behin, astelehenez eta arratsaldean, odola eman daiteke Udarregi Ikastolan.

Odol emaile omenduak

25 odol emate

- Julen Arteaga Iriondo.
- Mikel Irastorza Leunda.

25, 40, 50 ETA 75 ODOL EMATE EGINDAKO HERRITARRAK IZAN DIRA OMENDUAK

- Leire Ugaldebere Mugartegui.
- Juan Pedro Furundarena Echeverria.

Emakumeak, 40 odol emate

- Maria Jesus Furundarena Salsamendi.

Gizonezkoak, 50 odol emate

- Juan Jose Estevez Martin.
- Jose Antonio Ugarte Balerdi.

Gizonezkoak 75 odol emate

- Koldo Lertxundi Azkue.

Futbol partidak

Urtarrilak 27 larunbata, Haranen:

- 9:00 Infantil mutilak: Usurbil FT B-Martutene KE B
- 10:30 Kadete neskek: Usurbil FT-Antiguoko KE B
- 12:15 Kadete mutilak: Usurbil FT-Oiartzun KE B
- 15:30 Preferente mutilak: Usurbil FT-Getariako KETA FTCD
- 17:45 Jubenilak: Usurbil FT B-Amara Berri KE B

Haranetik kanpo:

- 9:00 Infantil mutilak, Donostia-ko Felix Garinen: Arrupe Chaminade CDDF C-Usurbil FT
- 17:30 Kadete neskek, Arrasaten: Mondragon CF B-Usurbil FT B

Urtarrilak 28 igandea, Haranen:

- 16:30 Preferente neskek: Usurbil FT-Martutene KE

Haranetik kanpo:

- 11:30 Erregionalak, Oiartzunen: Oiartzun KE B-Usurbil FT B
- 12:00 Infantil neskek, Añorgan: Añorga KKE B-Usurbil FT
- 12:30 Jubenil preferenteak, Irunen: Mariño CD-Usurbil FT
- 15:30 Kadete mutilak, Zizurkilen: Danena KE C-Usurbil FT B

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiarrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Aginaga sagardotegian txotx garaietan larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez aritzeko 616273785.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

BESTELAKOAK

Belarritako bat aurkitu genuen kaletan, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu: 607 168 352.

Boleibola

Urtarrilak 27, larunbata

- 12:00 Infantilak:
Udarregi-Bera Bera

- Kadeteak:
Udarregi-Ostadar

Eskubaloia

Haranen

Urtarrilak 27, larunbata

- 17:30 Senior mutilak:
Saizar Usurbil KE-Urdaneta

Urtarrilak 28, igandea

- 10:30 Infantil mutilak:
Usurbil KE B-Hernani

- 11:45 Infantil neskek:
Usurbil KE A-Urola

HILDAKOAK



Maria Teresa Altuna Agote
Urtarrilaren 17an hil zen, 94 urterekin.

ZORION AGURRAK



Zorionak Oier!
10 urte, ze mutil handi. Asko maite zaitugu eta muxu handi bat etxekoan partez!

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 25	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 26	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 27	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 28	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Astelehena, 29	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteartea, 30	ORLUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Asteazkena, 31	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Osteguna, 01	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 02	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 03	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 04	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaituz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 26

USURBIL Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko mobilizazioa.

20:00etan Mikel Laboa plazan.

USURBIL Aitzagak 30 urte: Amebaren kontzertua

Aitzaga tabernaren atarian. Sareren kontzentrazioaren ondoren.



Amebak kontzertua eskainiko du ostiral honetan Aitzaga tabernaren atarian.

Aitzagaren 30. urtemugako lehen ospakizunak

Aurten 30 urte beteko dituen kultur elkarteak urtemugari lotutako lehenengo bi hitzorduok iragarri ditu:

"30 urtez hegaldian"

Urtarrilak 26, ostirala

• 20:15 Ameba herriko taldearen kontzertua Aitzaga tabernaren atarian.

Otsailak 2, ostirala

• 21:00 Barrikotea Aitzaga elkartearen.
• Menua: baratxuri eta ganba nahaskia, bakailua piper eta tomate saltsarekin, saiheskia, postrea, kafea eta kopa.
• Sarrera: 20 euro.
Antolatzailea: Aitzaga kultur elkarte.

Hitzordu bikoitza Kantu Taldearekin

Urtarrilak 27, larunbata

• 12:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Otsailak 4, igandea

• 18:00 Santa Ageda bezperako kantu-jira herrian barrena, Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berritik, Egurtzegitik abiatuta.

Bi aste barru, Inauteri Jaia

Inauteri Festa

Otsailak 9, ostirala

• 19:00 'Urderen etorrera'. Kiroldigitik abiatuta kalejira. Mozorrotu eta etor zaitez gurekin Usurbilgo inauteriaz gozatzera!

Otsailak 10, larunbata

• Gaia: fauna.
• 11:30 Mozorro dantza-kalejira Kiroldigitik abiatuta!
• 12:30-14:00 Joaldunak kalean zehar.
• 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.
• 22:30 Itzal erromeri taldearen emanaldia frontoian.
• Antolatzaileak: NOAUA! K.E., Orbel-di, Zumarte eta Usurbilgo Joaldunak.

Arantzazura irteera

'Ostegun Santu' egunez egin ohi dute Usurbildik Arantzazura oinez joateko txangoa. Aurten, martxoaren 28an izango da hamarkada luzeetako ohitura berritzaileko aukera.

LARUNBATA 27

USURBIL Ate irekien eguna Udarregi ikastolan

Ikastolako instalakuntzak eta proiektua ezagutzeko aukera.

10:30/12:00 Agerialdeko eraikinean.

USURBIL Kantu-jira

Kantu-jirarako ez ahaztu kantuliburuxka eramatea.

12:00etan Mikel Laboa plazan.

IGANDEA 28

USURBIL Irisasi BTT Hotzak Akabatzen

Izen-ematea urtarrilaren 24ra arte, 25 euroren truke, kronoak.com atarian.

09:00-12:00 Usurbilgo frontoitik abiatuta.



ARTZABAL

 BASERRIA · JABETXEA

www.artzabaljabetxea.com

· EGUNEKO MENUA
 · KARTA
 · RAZIOAK
 · HANBURGESAK
 · BOKATAK




943 36 91 39



ANORGA TXIKI S.L.

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak
 · dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

650
USURBIL
bizi

noaua

LAN DEIALDIA - TURISMO GIDARIAK

650 Usurbil Bizirik turismo eredu proiektuaren bisita gidatuak egiteko
GIDARIEN lan-poltsa osatzeko deialdia.

Noaua! K.E.ak ordukako kontratua eskaintzen du.

Asteburuetan ere disponibilitatea beharko da. Bisitek urteko egutegia dute.

Betebeharrak:

- KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA IZATEA. Turismo, Kultura, komunikazio edo jardura soziokulturalekiko interesa edo esperientzia kontutan hartuko da.
 - EGA edo baliokidea izatea eta gaztelaraz aritzeko arazorik ez izatea.
- KANPO HIZKUNTZAK JAKITEA. Ingelera edota frantsesaren ezagutza beharko da

Baloratuko dira:

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna.
- Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeko gaitasuna izatea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea.
- Herrigintzan esperientzia izatea.
- Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneak eta sare sozialeen kudeaketan ezagutza izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea

Interesatuak bidali curriculuma [elkartea@noau.eu](mailto:elkartea@noa<u>u</u>.eu) helbidera
2024ko urtarrilak 29 baino lehen.

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



ERRIGORAKO PRODUKTUEN
Bi saski
zozketatuko ditugu
NOAUA!ko bazkideen artean



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / [elkartea@noau.eu](mailto:elkartea@noa<u>u</u>.eu)

URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

[f](#) [@](#) @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: 943 365 031



Santuenea